



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko irailaren 25a

12. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ordain diezaien bere langileei 2012ko aparteko ordainsariaren % 25, eta igo diezaien soldata % 1 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera. Sergio Sayas López jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gardentasun plan berariazko bat taxutu dezan Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren barruan dauden enpresa publikoetarako. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, botere publiko eta administrazio publiko guztiak premiatzen dira bulkatzen jarrai dezaten benetako europar politika bat, komuna eta integrala, immigrazioari eta asiloari dagokienez. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lan Autonomoaren Nafarroako Plan Estrategikoa presta dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen baitio Emakumeen Mundu Martxari, eta berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Leopoldo López, Voluntad Popular alderdiko bere kideei eta venezuelar guztiei. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, zenbait ikastetxe pribatu sare publikoan sartzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, jakiteko zein den Osasun Departamentuaren plangintza Ospitaleko sukaldeen zerbitzuaren kudeaketa publikoa berreskuratzeko. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (10. or.).
- Galdera, “Erregai alternatiboen balorizazioa Olartziko zementu fabrikan” izeneko Udalez gaindiko Plan Sektorialari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).

- Galdera, izandako sutearen ostean Altsasuko haur eskolarako behin betiko konponbidea emateko egin edo eginen diren urratsei buruzkoa. Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako hiriarteko garraiorako emakidak lehiaketara ateratzeari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Mugikortasun jasangarriari eta Nafarroako garraioaren antolamenduari buruzko foru lege integral baten proiektu iragarriari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, unibertsitate aurreko ikasketetan matrikulatutako ikasleei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, irakasuntzan hizkuntza-ereduz aldatzea eskatu duten ikasleei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, udalek eta federazioek zenbait proiektutarako egin ditzaketen inbertsioak egiteari buruzkoa. Luis Casado Oliver jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, N-121 errepidearen Tafallako zeharbidearen azterketa eta jarduketa-aukerei buruzkoa, oinezkoentzat eta bizikleta-erabiltzaileentzat egun dauden arriskuak kentze aldera. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Sodenak egindako jarduketa eta inbertsioen emaitzei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Osasunbidearen organigramaren aldaketei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (17. or.).
- Galdera, iragarri den Mugikortasun jasangarriari eta Nafarroako garraioaren antolamenduari buruzko foru lege integral baten proiektuari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (18. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ordain diezaien bere langileei 2012ko aparteko ordainsariaren % 25, eta igo diezaien soldata % 1 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera.

SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ordain diezaien bere langileei 2012ko aparteko ordainsariaren % 25, eta igo diezaien soldata % 1 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko parlamentari Sergio Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2010ean, Espainiako Gobernuko lehendakari zen José Luis Rodríguez Zapaterok erabaki zuen funtzionarioei % 5 jaistea soldata. Harrezkero, Espainiako gobernu ezberdinek hartutako erabakien ondorioz –Espainiako gainerako administrazioek nahitaez bete behar zituzten erabaki

horiek–, administrazio publikoetako langileek murriztuta ikusi dute aldiro beren erosahalmena.

Aurrekontu-egonkortasunari buruzko Legeak eragotzi egiten zien autonomia erkidego eta udal guztiei Espainiako Gobernuaren erabaki horren aurkako erabakirik hartzea.

Hala gertatu zen 2012an ere, Mariano Rajoyren Gobernuak funtzionario espainiarrei aparteko ordainsari bat kendu zienean.

Une hartan, Nafarroak, aurrekontu-egonkortasunari buruzko legea betez, aurrerakin-sistema bat aurkitu ahal izan zuen, zeinari esker gure erkidegoko funtzionarioek ez baitzuten erosahalmenaren galera hori beren sakeletan nabaritutako, eta Espainiako Gobernuak kendutako ordainsariaren % 25 itzuli zien hark baimendutako unean bertan.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

1. Aplikatzekoa den oinarriko legediarekin bat, Nafarroako Gobernuak eta hari lotutako sektore publikoak beren langileei ordain diezaieten 2012ko aparteko ordainsariaren % 25, Espainiako Gobernuak Estatuko Administrazioaren menpeko langileei ordaintzen dien unean bertan, zenbateko hori zor zaien Nafarroako langile publikoen eskubide bat delako.

2. Nafarroako langile publikoei % 1 igo dakien soldata, 2016ko urtarrilaren 1etik aitzina.

Iruñean, 2015eko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gardentasun plan berariazko bat taxutu dezan Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren barruan dauden enpresa publikoetarako.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gardentasun plan berariazko bat taxutu dezan Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren barruan dauden enpresa publikoetarako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gardentasun plan berariazko bat taxutu dezan Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren barruan dauden enpresa publikoetarako.

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeak hauxe dio, hitzez hitz, 2. artikuluko bigarren idatz-zatian: “Sozietate publikoek, fundazio publikoek eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioarekin eta haren erakunde publikoekin lotutako zuzenbide publikoko entitateek, bai eta haien agintaritzapean zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek ere, foru lege honen printzipio gidarietara egokituko dute beren jarduera, eta, gainera, zer administrazioari lotuta dauden, administrazio hari lege honetan ezarritako betebeharrak guztiak betetzeko behar duen informazio guztia eman beharko diote. Hori dena, beren arauak xedatzen dutena galarazi gabe.”

Gure ingurunean aitzindaria den lege horretako 4. artikulua Gobernu Irekiaren jarduketaren printzipioak zerrendatzen ditu; 5. artikulua, eskubideak, eta 6. artikulua, berriz, neurriak. Horiek guztiak argigarriak dira, eta argiro jasotzen dute zeintzuk diren Nafarroako Gobernuaren esparruko sozietate publikoek merezi dituzten Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren gutxienekoak.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren barruan egun dauden enpresa publikoetarako gardentasun plan berariazko bat taxutu dezan eta berehala bete dezan, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean jasotako printzipio, eskubide eta neurri guztiak jasoko dituen, Nafarroako Foru Komunitatea osatzen duten eragile eta herritar guztien parte-hartzerako eta lankidetzarako beharrezkoak diren neurriak ezar ditzan eta ahal den informazio gehienaren eskuragarritasuna erraztu dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, botere publiko eta administrazio publiko guztiak premiatzen dira bulkatzen jarrai dezaten benetako europar politika bat, komuna eta integrala, immigrazioari eta asiloari dagokienez.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez botere publiko eta administrazio publiko guztiak premiatzen baitira bulkatzen jarrai dezaten benetako europar politika bat, komuna eta integrala, immigrazioari eta asiloari dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, errefuxiatuentzako laguntza estatu-arazo gisa hartzeari buruzko honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onets dadin.

Europa krisi humanitario larria ari da pairatzen uneotan; izan ere, milaka pertsona ari dira bizilekuz aldatzen, beren jaioterrietako gerratik eta izutik ihesi eta Europan segurtasun, askatasun eta giza eskubideekiko errespetuzko espazio bat bilatu nahian.

Ikusten ari garen egoera humanitarioaren ezaugarri zinez dramatikoaren artean daude heriotza lazgarriak; halatan, denok inplikatu behar dugu arazoari konponbide bat bilatzeko.

Estatu-arazo bat da hau, Europar Batasunaren eta nazioarteko erkidegoaren arteko koordinaziorik handiena eskatzen duena, bai eta, gure nazioan, administrazio guztien, hirugarren sektoreko erakunde eta entitateen eta gizarte zibil osaren arteko lankidetzaren ere.

Espainiako gizarteak beste behin erakutsi du espainiarrok sufritzen dutenenganako beti erakutsi dugun elkartasun eta konpromiso handia.

Nazioko Gobernuak hilabeteak daramatza krisi hori kudeatzeko lanean. Maiatzean abian jarri zen lan-talde bat, zeinetan parte hartzen baitzuten arazoarekin zerikusia duten ministerioek, eta haren lekukoa hartu du ministerioen arteko talde batek, zazpi ministeriotako ordezkariak osatua eta buru-belarri lan egiten ari dena, Europak hartutako erabakiei jarraikiz, nazioartearen babesa eskatzen dutenen lekualdatzea, harrera eta integrazioa kudeatzeko.

Halaber, dagoeneko bildu da Immigrazioaren Konferentzia Sektoriala –autonomia erkidegoek eta Espainiako Udal eta Probintzien Federazioak parte hartzen dute bertan–, eta areagotu egin dira errefuxiatuen integrazioan eta laguntzan adituak diren entitateekiko bilerak eta kontaktuak, bai eta ACNURen ordezkariak ere.

Nazioko Gobernuak beti erakutsi du prest dagoela krisi honi aurre egiten laguntzeko, eta nazioartearen babesa eskatzen dutenei dagokienez Europako Batzordeak proposatzen dituen guztiak hartzeko konpromisoa hartu du; hartara, erantzukizun eta elkartasunik handiena erakutsi du auzi honetan, krisi honen hasieratik beste hainbestetan bezala.

Izan ere, Gobernuak jada aurreikusita zeukan nabarmen handitzea errefuxiatuak hartzeko eta integrazeko kontusailak, Estatuaren 2016rako Aurrekontu Orokorren Lege proiektuan, zeina Ministroen Kontseiluak uztailaren 31n onetsi baitzuen.

Horren osagarri, eta krisi humanitarioa okertu izanari erantzunez, Ministroen Kontseiluak errege dekretu bat onetsi du irailaren 11n, 13 milioi euroko aparteko laguntzak emate aldera nazioartearen babesa eskatzen dutenentzako laguntzaren kudeaketan inplikaturako elkarteei, berehalako lehenengo neurri gisa gure laguntza-sareak egoera berrira egokitzearen.

Koherentziaz, Alderdi Popularrak zuzenketa bat aurkeztu die Diputatuen Kongresuan 2016rako aurrekontuei, talde guztiek babestu dutena, nazioartearen babesa eskatzen dutenentzako

laguntzarako kontusailak 200 milioi eurekin sendotzeko.

Espainiak orain dela hainbat urte dauka errefuxiatuentzako laguntza-sistema bat, unean uneko beharrezanez erantzun bat eman diena eta egungo egoerari aurre egite aldera baliabide gehiagorekin indartzen ari dena. Halaber, harrera-herri bat izatearen eskarmentu sendoa ere badugu; izan ere, Espainiak itsas-muga egiten du Europaren hegoaldean, eta horrek erreferentzia izatera garamatza atzerritarrentzako laguntza humanitarioaren arloan, bai eta mota guztietako migrazio-mugimenduei dagokienez politika europar bat –bateratua, koordinatua eta integrala– errebindikatzearen arloan ere.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak botere publiko eta administrazio publiko guztiak premiatzen ditu:

1. Bultzatzen jarrai dezaten egiazko immigrazio- eta asilo-politika europar bat –komuna eta integrala–, behar adina finantza-baliabide eduki beharko dituen.

2. Europar Batasunaren gaitasuna indar dezaten, pairatzen ari garenen gisako larrialdi-egoerei aurre egiteko.

3. Europako funtsen hornidura bultza dezaten, jatorrizko herrialdeetan lankidetzai-erak indartzeko eta metatzeko; bereziki, Afrikako herrialdeei finantza-laguntza emateko Europako Funts Fiduziario batena, Espainiako Gobernuak egindako proposamen bat oinarri hartuta.

4. Lehetasuna eman diezaieten jatorrizko eta igarobideko herrialdeekiko elkarrizketari eta lankidetzari, bai eta gatazka-eremuekin muga duten herrialdeekikoari ere, errefuxiatuen harrerari dagokionez.

5. Igarobideko herrialdeekin lankidetzan jardun dezaten, beren mugak babesteko eta giza tragedia honekin aberasten diren mafien aurka borrokatzeko.

6. Errefuxiatuen jaioterrietan bakea eta egonkortasuna ahalbidetuko dituzten ekimen guztietan elkarrekin lan egin dezaten.

Iruñean, 2015eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Lan Autonomoaren Nafarroako Plan Estrategikoa presta dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Lan Autonomoaren Nafarroako Plan Estrategikoa presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Lan Autonomoaren Nafarroako Plan Estrategikoa presta dezan.

2013ko martxoaren 12an, Nafarroan ekin-tzaileei eta lan autonomoari laguntza emateko Foru Legea onetsi zuen Legebiltzar honek.

Lege horren indarrez, Legebiltzar honek lan autonomoarekiko konpromisoa hartu zuen; izan ere, lehen aldiz eta behingoagatik, merezia zuten arau bereki baten bidez egin zitzaion lan autonomoari aitortza gure erkidegoan, halako moduan non Foru Gobernuak lan autonomoaren sustape-

naren eta kalitatearen aldeko betebeharra hartu behar baitu bere gain. Lanbide-mota horrek 46.827 langileri ematen zien lana Nafarroan 2015eko abuztuaren 31n.

Lege horrek Nafarroan norberaren kontura lan egiten duten langileen eginkizun, beharrian eta eskari ugari jasotzen ditu, baina ezin da ez gauzatu, ez neurri zehatzen aplikazioan asmatu ere, baldin eta ez badago abiapuntu jakin bat, autonomoen egoeraren diagnostiko erreal bat, Nafarroako Gobernuako departamentu eskudunak Lan Autonomoaren Nafarroako Plan Estrategikoaren bitartez egina.

Lan Autonomoaren Plan Estrategikoaren xedea izanen da lan autonomoaren esparruan garatzen

diren politika publikoen taxutze orokorra, esparru horretan ematen diren zerbitzuetan eraginkortasun eta efizientzia handienak lortzeko. Plan horretan, aurreko xedea lortzeko behar diren neurri, jarduketa eta baliabideak jasoko dira.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean Lan Autonomoaren Nafarroako Plan Estrategikoa presta dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 17an

Eleduna: María Chivite Navascués

Adierazpen instituzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen baitio Emakumeen Mundu Martxari, eta berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eman nahi dio Emakumeen Mundu Martxari, eta berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa hartu nahi du; hartara, bere esku dauden baliabide guztiak jarri nahi ditu helburu horiek lortzeko:

– Indarkeriari dagokionez, jarduketa-protokoloak abian jartzeko lan egin, eta indarkeria matxistaren arloko prestakuntzan eta sensibilizazioan lan egin nahi du. Halaber, gure babesa ematen diogu Emakumeen Mundu Martxaren protokoloari, eta indarkeria matxista salatzeko eta arbuiatzeko deialdiekin bat egiteko konpromisoa hartzen dugu.

– Zaintzaileen bizitza hobetzeko eta zaintzailana errazten duten zerbitzu publikoak sustatzeko lan egiten dugu.

– Sexu-aniztasuna eta genero-identitatea kontuan hartuta lan egiten dugu, bai eta lesbofobiari, transfobiari, arrazakeriari nahiz desgaitasunak dituzten pertsonen aurkako fobiari aurre egiteko ere.

Emakumeen ahalduntzea sustatuko dugu, eta emakume-sareak eta -taldeak eratzea bultzatuko dugu.

2. Nafarroako Parlamentuak emakume nafarrei dei egiten die Emakumeen Mundu Martxak irailaren 28an eta 29an Nafarroan egiten dituen ibilbidetan eta ekitaldietan parte har dezaten.

3. Adierazpen hau Emakumeen Mundu Martxaren Europako idazkariari igorriko zaio.”

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Leopoldo Lópezi, Voluntad Popular alderdiko bere kideei eta venezuelar guztiei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die Leopoldo Lópezi, Voluntad Popular alderdiko bere kideei eta beren ideiak askatasunez adierazi ezin dituzten venezuelarrei.

Nafarroako Parlamentuak adierazten du munduko leku guztietan defendatu eta zaindu behar direla printzipio demokratikoak; zehazki, giza eskubideak eta adierazpen askatasuna.”

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, zenbait ikastetxe pribatu sare publikoan sartzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, zenbait ikastetxe pribatu sare publikoan sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Hezkuntzako kontseilariak hedabide bati egindako adierazpenetan adibide gisa jarri zuen, eremu ez euskalduneko ikastolei buruz ari zela, Iruñeko Udalaren mendeko ikastolak sare publikoan sartu izana, bere garaian. Hori horrela, honako hau jakin nahi dut:

Gobernuak aukera gisa al darabil publiko bihurtu ahal izatea zenbait ikastetxe pribatu? Nola egingen du hori?

Iruñean, 2015eko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakiteko zein den Osasun Departamentuaren plangintza Ospitaleko sukaldeen zerbitzuaren kudeaketa publikoa berreskuratzeko.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zein den Osasun Departamentuaren plangintza Ospitaleko sukaldeen zerbitzuaren kudeaketa publikoa berreskuratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Kontuan izanda Legebiltzar honen eskariz 2014ko uztailean egindako txostenean Kontuen Ganberak baloratu zuela Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzuaren urteko kostua 650.000 euro merkeagoa izanen zela egungo enpresa esleipen-hartzaileak (Mediterránea de Catering) egindako fakturazioarekin baino egungo hotzeko produkzio-sistemearekin eta administrazio publikoaren baliabide berekiekin (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua) eginez gero, eta kontuan izanda Nafarroan aldaketa politikoa babesten duten lau alderdi politikoei sinatutako programa-akordioan hartutako konpromiso bat dela zerbitzu publikoak berreskuratzea,

Osasun Departamentuak zer plangintza darabil 2016an posiblea izan dadin –orduan irautzen baita ospitaleetako sukalde-zerbitzuaren egungo emakida– zerbitzu horren kudeaketa publikoa berreskuratzea, funtzionamendu-berme guztiekin?

Iruñean, 2015eko irailaren 17an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, “Erregai alternatiboen balorizazioa Olaztiko zementu fabrikan” izeneko Udalez gaindiko Plan Sektorialari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, “Erregai alternatiboen balorizazioa Olaztiko zementu fabrikan” izeneko Udalez gaindiko Plan Sektorialari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamariquek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Cementos Portland, S.A. enpresak ingurumenbaimena lortu zuen 2013an, Olaztiko plantan hondakinak errausteko. Baimen hori irailaren 16an iraungi zen, eta Nafarroako Gobernuak ebazpen bat eman zuen, NAO n argitaratu zena, baimen hori baliorik gabe uzteko.

Gauzak horrela, foru parlamentari honek honako galdera hau aurkezten du:

Nafarroako Gobernuak zer asmo dauka UPNko aurreko Gobernuak onetsitako “Olaztiko zementu fabrikan erregai alternatiboen balorizazioa egitea” izeneko udalez gaindiko proiektu sektorialari dagokionez?

Iruñean, 2015eko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, izandako sutearen ostean Altsasuko haur eskolarako behin betiko konponbidea emateko egin edo eginen diren urratsei buruzkoa.

MIREN JULIA ARANO AASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Arano Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, izandako sutearen ostean Altsasuko haur eskolarako behin betiko konponbidea emateko egin edo eginen diren urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Arano Astigarragak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari José Luis Mendoza Peña jaunak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Iragan irailaren 3an, sute batek kalte handiak eragin zituen Altsasuko Haur Eskolan; hain zuzen ere, Zelandi Eskola Publikoaren ondoko modulu aurrefabrikatu batzuetan.

• Hezkuntza Departamentuak zer urrats egin ditu edo eginen ditu Altsasuko Haur Eskolari behin betiko konponbide bat emateko?

Iruñean, 2015eko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Miren Arano Astigarraga

Galdera, Nafarroako hiriarteko garraiorako emakidak lehiaketara ateratzeari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako hiriarteko garraiorako emakidak lehiaketara ateratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Garapen Ekonomikorako kontseilari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak irailaren 15ean egindako agerraldian, Nafarroan hiriarteko garraioaren emakidak lehiaketara ateratzeari dagokionez adierazi zuen oraingo egoera ezin dela betiko luzatu.

Nafarroako Gobernuaren Garraio Zerbitzuak aurreko legegintzaldian egindako azken proposamenen planteatu zen egungo 37 emakidak 14raino murriztea. 2014an, Europako Erkidegoetako Aldizkarian egin beharreko oharrak egin zitzaizkien horiei guztiei; proposamenak eta parte-hartze prozesuak egin ziren horietako bitan (Erriberagoiena eta Erriberabarrena), eta urratsak egin ziren Baztango eta Tafallako eskualdeen azterlanetan. Azkenik, autobus berrietarako berrikuntza teknologikoak –softwarea eta ekipak– kontratatze kontratazio-agiriak prestatu dira, nahiz eta ezin izan diren lehiaketara atera.

Erabat ados gaude kontseilariarekin esaten duenean egungo egoera ezin dela luzatu proposamenek, parte-hartze publikoko prozesuek eta exijitu beharreko prozedurek ezarritakoaz harago, eta horrenbestez eskatzen dugu izapidetzera onar dadin adierazitako gai horri buruzko honako galdera hau, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

- Zer egutegi zehatz aurreikusten du kontseilariak, garraio-emakida horiei irteera ematen joateko?

Iruñean, 2015eko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Mugikortasun jasangarriari eta Nafarroako garraioaren antolamenduari buruzko foru lege integral baten proiektu iragarriari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Mugikortasun jasangarriari eta Nafarroako garraioaren antolamenduari buruzko foru lege integral baten proiektu iragarriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Garapen Ekonomikorako kontseilari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak irailaren 15ean egindako agerraldian, Nafarroako Foru Komunitateko Mugikortasun Iraunkorrari eta Garraioaren Antolamenduari buruzko lege integral berri baterako proposamena aipatu zuen. Esan zuenaren arabera –hala dago jasota agerraldian zeuden talde guztiei banatutako dokumentazioan–, “funtsezkoa” da dagoen informazioa berrikustea eta beharrezkoak diren azterketa osagarrien bidez osatzea.

Berritasun hori ikusita, gai horri buruzko honako galdera hau izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

– Zenbat denbora hartuko duzue dagoen informazioa berrikusteko eta iragarritako azterketa osagarriak egiteko (aurretiazko fasea)?

– Foru lege proiektua aurkezteko konpromisoa.

– Aurreikusitako garraio-emakiden irteerarekin zerikusirik ote duen.

Iruñean, 2015eko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, unibertsitate aurreko ikasketetan matrikulatutako ikasleei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, unibertsitate aurreko ikasketetan matrikulatutako ikasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta

hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion.

Nafarroako Foru Komunitatean 2015-2016 ikasturtea hasi delarik, honako galdera hauek egin nahi dizkiogu Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari:

1.- Zenbat ikasle matrikulatu dira unibertsitate aurreko irakaskuntzan?

2.- Horietako zenbat matrikulatu dira ikastetxe publikoetan, eta zenbat ikastetxe itunduetan?

3.- Ikasle kopurua, hizkuntza eredu eta eskaintako programa bakoitzaren arabera.

4.- Zenbat Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketako programetan, prestakuntza zikloetan eta Hezkuntza Berezian?

5.- Orik 3 urtera bitarteko zikloko haurren kopurua. Zehaztu herrien arabera ere.

Corellan, 2015eko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, irakaskuntzan hizkuntza-ereduz aldatzea eskatu duten ikasleei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, irakaskuntzan hizkuntza-ereduz aldatzea eskatu duten ikasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion.

Hasia da 2015-2016 ikasturtea Nafarroako Foru Komunitatean, eta ikusita euskara Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan sartzea arautzen duen maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretua eta irakaskuntzako hizkuntza ereduen aldaketei dagokienez foru dekretua garatzen duten foru

aginduak, galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dut:

1.- Hezkuntza-maila bakoitzean hizkuntza eredu aldaketak eskatu duten ikasleen kopurua. Zehaztu eskabide horien arrazoiak, etapak eta mailak.

2.- Eskabidea onartu zaien ikasleen kopurua. Zehaztu baimen horiek emateko egon diren arrazoiak, etapak eta mailak.

3.- Zenbat eskabide egin dira ikasleak onartzeko epe arruntean, etapa bakoitzean?

Corellan, 2015eko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, udalek eta federazioek zenbait proiektutarako egin ditzaketen inbertsioak egiteari buruzkoa.

LUIS CASADO OLIVER JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Casado Oliver jaunak aurkeztutako galdera, udalek eta federazioek zenbait proiektutarako egin ditzaketen inbertsioak egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Luis Casado Oliver jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengo-

tan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion.

Espainiako Futboleko Errege Federazioak eta Kirolaren Kontseilu Nagusiak iragan ekainaren 17an aratu zuten futbol ez profesionalari futboleko kirol apustuetatik heldu den diruaren banaketa egitea, halako moduan non udalek eta federazioak zenbait inbertsio finantzatu ahal izanen baitituzte.

Udalek nahiz federazioek proiektuak aurkezteko epea bukatu delarik, hauxe jakin nahi dut:

1.- Ba al dakizue Nafarroan zer proiektu aurkeztu diren?

2.- Zenbat eskatu dituzte udalek, eta zenbat federazioek?

3.- Horien zerrenda eta zenbatekoak jaso nahi ditut.

4.- Nafarroako Gobernuak aurreikusita al dauka onesten diren proiektuei diruz laguntzea?

Tuteran, 2015eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Luis Casado Oliver

Galdera, N-121 errepidearen Tafallako zeharbidearen azterketa eta jarduketa-aukerei buruzkoa, oinezkoentzat eta bizikleta-erabiltzaileentzat egun dauden arriskuak kentze aldera.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, N-121 errepidearen Tafallako zeharbidearen azterketa eta jarduketa-aukerei buruzkoa, oinezkoentzat eta bizikleta-erabiltzaileentzat egun dauden arriskuak kentze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek jakin nahi du ea Nafarroako Gobernuak zer azterlan- eta jarduketa-aukera darabiltzan gogoan N-121 errepideko Tafallako zeharbideari dagokionez –Recoletasko eraikineren parean–, oinezkoek eta txirrindulariek egun bizi dituzten arriskuak kentze aldera.

Iruñean, 2015eko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Sodenak egindako jarduketa eta inbertsioen emaitzei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Sodenak egindako jarduketa eta inbertsioen emaitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2014ko azaroaren 26an Parlamentuan egindako agerraldian, orduko Ekonomiako kontseilari Lourdes Goicoechea andreak Sodenaren jardura globalaren balantzea egin zuen; besteak beste, ondokoak azpimarratu zituen:

1. Errentagarritasuna.
2. Salmenten igoera.
3. Enplegua sortzea.
4. Inbertsioen eragin biderkatzailea.
5. Berrikuntzaren areagotzea eta hobekuntza.
6. Nazioartekotzearen areagotzea.

Horri buruz, parlamentari honek ondoko hau jakin nahi du:

• Aipatutako sei atal horietako bakoitzari buruzko azalpen xehakaturia, Sodenak egindako inbertsio bakoitzari dagokionez. Erantzunean informazioa jatorrizko Excel formatuan emateko eskatzen dugu.

Iruñean, 2015eko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Osasunbidearen organigramaren aldaketei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Osasunbidearen organigramaren aldaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko

araudiak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Pasa den irailaren 15ean Osasun Kontseilariaren lehenengo agerraldia izan genuen Osasun Batzordean, eta jorratu beharreko gai guztiak planteatzeko denbora nahikorik izan ez genuenez, hauxe jakin nahiko genuke:

– Zein izan dira, zehazki, Osasunbidearen egituraren, zuzendaritza, zerbitzu eta atalei dagokienez egindako aldaketak?

– Halaber, zein irizpide erabili dira bermoldaketak abian jartzeko?

– Azkenik, organigrama osoaren eskema ere atxikitzea nahiko genuke, ardura postu bakoitzean izendatutako pertsonak ere zehaztuz.

Iruñean, 2015eko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, iragarri den Mugikortasun jasangarriari eta Nafarroako garraioaren antolamenduari buruzko foru lege integral baten proiektuari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, iragarri den Mugikortasun jasangarriari eta Nafarroako garraioaren antolamenduari buruzko foru lege integral baten proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Garapen Ekonomikorako kontseilari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak irailaren 15ean egindako agerraldian, Nafarroako Foru Komunitateko Mugikortasun Iraunkorrari eta Garraioaren Antolamenduari buruzko lege integral berri baterako proposamena aipatu zuen.

Berritasun hori ikusita, foru lege proiektu horretan bere ustez arautu beharrekoaren edukia, norainokoa eta alderdiak zeintzuk diren ez dakigunez, gai horri buruzko honako galdera hau izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan, lehen adierazitako gaiaren alderdi hauei buruz:

– Ustez arautu beharrekoaren edukia, norainokoa eta alderdiak.

– Gogoan darabiltzazuen neurri orokor adierazgarrienak.

– Nafarroako toki entitateentzako betebeharrak eta exijentziak.

– Etorkizuneko foru legearen aplikaziotik heldu diren ekintzen finantzaketa.

Iruñean, 2015eko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

